

BERDINEN ARTEKO TUTORETZA DESBERDINTASUNETIK IKASTEA

David DURAN

Denontzako kalitatezko hezkuntza batera hurbiltzeko, beharrezkoa dugu irakasleek eta eskolek gure irakaskuntza-jardueren bankuan irakaskuntza-metodologiaren bilduma aberats eta askotarikoa gehitzea. Irakasleak, zenbat eta irakasteko tresna gehiago eduki, orduan eta errazago erantzungo die ikasleek hezkuntza-behar guztiei.

Tresna sorta hori aberasteko, komenigarria da ikasteko ikasleek elkarri ematen dizkieten laguntzak erabiltzen jakitea, guretzako baliabide-iturria baitira. Jakin behar dugu ikasleek arteko interakzioak nola erabili irakaskuntza-baliabide gisa. Energia natural eta berriztagarria da, eta irakasle guztion gelaren barruan dago, baina ohiko irakaskuntza hura baztertzen saiatu da, berdinen arteko interakzioak ikaskuntza eragozten duelakoan eta erlazio hezigarri bakarra irakaslearen eta ikaslearen arteko delakoan.

Merezi du ideia zahar hori alde batera uztea, hau da, irakasleek lepo dauden geletan emandako laguntzen –nahitaez mugatuak– bidez bakarrik ikasten dutela ikasleek, eta, erronka berriari ekinda, bitarteko izateko edo irakasteko gure gaitasuna ikasleekin partekatzea. Gure gelak ikastun-erkidego bihurtzea ahalbidetuko liguke horrek; han, ikasleek, irakasleek laguntza zuzenez gain, ikaskideen laguntza jasoko lukete, betiere irakasleak gainbegiraturata.

Autore batzuek azpimarratu dute zenbait egoeratan ikasleek tutore-rola jokatuz kalitatezko laguntza pedagogikoa eman diezaieketela beren ikaskideei; izan ere, laguntzaren xedea den helburu didaktikoa ikasi berria dutenez, jakin dezakete zein puntutan sortzen diren ikasteko zailtasunak. Gainera, ikasleek kultura- eta hizkuntza- esperientzien testuinguruak partekatzen dituzte, eta horrek errazten du ikaskideei zenbait laguntza egoki ematea. Horrekin ez dugu esan nahi irakasleak irakasleak baino bitartekari edo hezitzaile hobeak direnik, jakina. Baina nabarmendu nahi dugu zenbait abantaila izan ditzaketela helduekin alderatuz gero. Abantaila nagusia, dudarik gabe, gaur egungo geletako funtzionamenduarekin bat dator, gure ikasleei eskain diezaiekegun bakarkako laguntza oso mugatua baita. Aitzitik, ikasleek elkarri laguntzeko jarduerak antola ditzakegu eta, hala, guk behar duten horiei erantzun diezaiekegu.

Beti ez da erraza izaten ikasleek arteko interakzioak ikasteko aukera bihurtzea. Gure lan-esperientzian, denok ikusi dugu zenbaitetan ikasle batzuek gutxi ematen dutela edo deus ere ez eta besteek lan guztia hartzen dutela beren gain. Segur aski hori talde-lanaren ezaugarrietako bat da, eta, beraz, beharba-



da, kontzeptu sofistikatuago batera jo behar genuke, beste lan-talde mota bate-ra: elkarlana, non kide guztien ekarpenak ezinbestekoak baitira. Hala, ikas-kuntza kooperatiboan, taldekideen arteko interdependentsia positiboa susta-tzen da (bakoitzaren arrakasta edo porrota talde osoarenari lotzen zaio) eta banakakoen ekarpena ezinbestekoak dira helburua lortzeko.

Ikaskuntza kooperatiborako metodoak (Monereo eta Duran, 2002) talde-lan hutsetik elkarlanera pasatzeko aukera ematen duten diseinu didaktikoak –ba-tzuk besteak baino konplexuagoak– baino ez dira. Ikaskuntza kooperatiboa maiz aurkezten da eskola inklusiborako (edo denontzako eskolarako) metodo-logia abantailatsutzat, ikasleen arteko desberdintasunak onartzeaz gain horiei etekina ateratzen baitie (ikasleak desberdinak direlako eta ezagutza maila des-berdinak dituztelako ikasten baitute), eta aniztasuna positibotzat jotzen da.


Berdinen edo ikasleen arteko tutoretza ikaskuntza kooperatiborako metodoetako bat da. Erlazio asimetrikoa (tutoreari eta tutoretza jasotzen duenari dagozkien roletatik datorrena) izango duten bikoteak sortzean datza; helburu bakarra eta par-tekatua dute (curriculumeko gaitasun bat lortzea) eta, hura irakasleak planifikatu-tako erlazio-testuinguruaren bidez lortzen da (Duran eta Vidal, 2004). Hau da, batetik, badugu ikasle bat tutorearen –ikaskide baten bitartekariaren– lana eginez ikasten duena, irakasleok ongi dakigun bezala irakastea ikasteko modu oso ego-kia baita, eta, bestetik, tutoretza jasotzen duen ikaslea; horrek ere ikasten du, bere ikaskidearen laguntza pertsonalizatua jasotzen baitu.

Berdinen arteko tutoretza edo *Peer Tutoring* delakoa maiz erabiltzen ari da herrialde askotan, irakaskuntza maila guztietan –Haur Hezkuntzatik unibertsita-teraino– eta curriculumeko arlo guztietan. Irakaskuntza-adituek ere, UNESCOk (Topping, 2000) esaterako, gomendatzen dute denontzako kalita-tezko eskola lortzeko.

Badira adin desberdinetako ikasleen arteko tutoretza-esperientziak (*cross-age tutoring* direlakoak). Horietan, espero izatekoa den bezala, zaharrena izaten da tutorea. Adin bereko ikasleen arteko tutoretzak ere egiten dira (*cross-age tuto-ting*), eta ez dira antolatzen hain zailak. Rolaren izaera finkoa edo aldakorra den kontuan hartuta, rol finkoko tutoretzak eta elkarrekiko tutoretzak bereizten dira; azkeneko horietan, tutoreak eta tutoretza jasotzen dutenak aldizka truka-zen dute beren papera.

Eremu anglosaxoian praktikan zein ikerkuntzan aurreratuagoa badaude ere, berdinen arteko tutoretza ez da berria gure irakaskuntza-testuinguruetan. Maisu-maistrek erabili izan dute, eta herri txiki-tako eskolek, adin askotako haurrak biltzen dituen gela bakarrean, jakin izan dute desberdintasun horiek aprobetxatzen zaharrenek txikienei lagun diezaieten.

Orain metodo hori azpimarratzen dugunean, gure helburu bakarra ez da, lehen aipatu bezala, hura formalizatzea eta sistematizatzea irakaskuntza-jar-duera egokien bilduman sartzeko; horretaz gain, interakzio-formatuak sortu nahi dira, oinarri gisa, bi ikasleek ikas dezaten eta ez bakarrik tutoretza jaso-tzen duenak. Ildo horretan, zenbait material diseinatu ditugu, oraingo zata-lana eta gaztelania bakarrik irakastea helburu dutenak; horiek esperientzia asko eta oso desberdinak akuitatu dituzte (Duran 2006), eta praktikatik ikusi ahal izan dugu posible dela ikasleak bitartekariak izateko gaitasuna mobili-zatzea, ikasleek modu naturalean dituzten ezagutza mailen desberdintasuna aprobetxatuz eta jarduerak eta interakzio-testuinguruak eskainiz. Horietan, bi



ikasleek ikasten dute, tutoreak sakonduz eta tutoretza jasotzen duenak dakiena sendotuz.

Llegim en parella (Bikoteka irakurtzen dugu) programa da esperientzia horietako bat, eta Kataluniako zenbait ikastetxek osatutako sare batek jarri du martxan. Ikasleen arteko tutoretza zein familia-tutoretza (hainbat baliabide eskaintzen dira familiek etxetik irakurketa-tutore gisa lan egin dezaten) erabiltzen ditu programak, eta ikasleen irakurketa-gaitasuna hobetzea du helburu. Astean bi aldiz egindako ordu erdiko saioetan, benetako testu bat duen lan-orri bat ematen zaio bikote bakoitzari; bikotean irakurtzeko teknika bati jarraituz irakurriko dute, eta, gero, eztabaidan jardun beharko dute irakurketa-gaitasuna lantzeko ariketak ebazteko.

Interakzio-formatu oso egituratuaren alde egiteak ikaskuntza erraztuko du, baina aldez aurreko prestakuntza eskatuko du. Prestakuntza egin ondoren, berdinen arteko lan-denbora eraginkorreko tasa handia lortzen dute tutoretza-saioek. Ikasleei aukera ematen die beren ikaskuntza prozesuaz ohartzeko (erabili beharreko prozedurei buruz hausnartuz, material didaktiko propioak sortuz, beren burua ebaluatuz...); irakasleei, berriz, gelaren kudeaketa tradizionalak zailtzen dien guztia egiteko parada eskaintzen die (laguntza pertsonalizatua ematea, ebaluazio jarraiturako datuak biltzea, beren ikasleek nola pentsatzen duten jakitea...).

Zalantzarik gabe, edozein metodologiak bezala, berdinen arteko tutoretzak arriskuak eta alderdi txarrak ditu. Horiek minimizatzeko eta onurak bakarrik lortzeko, gure esperientziak esaten digu beharrezkoa dela ikasleei erlazio-egitura oso zehaztua eskaintzea, eta, hura barneratu ahala, beren behar espezifikoetara egokitzeko ahalbidea emango diegu. Materialak sortu behar dira egitura horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eta ikasle-tutoreei aukera eman behar zaie material didaktikoak sortzeko (irakaslearen ereduari jarraituz eta hark gainbegiratuta). Beharrezkoa da bikoteen funtzionamendua finkatzeko denbora-tarte bat ematea eta bakoitzak bere rolera egokitu dadin laguntza eskaintzea. Lehenago esan bezala, irakasleak beste paper bat bete behar du, bikoteak gainbegiratzea eta haien aurrerapenen feedbacka eskaintzea, alegia.

Denok ados gaude XXI. mendeko gizartean, informazioaren eta jakintzaren gizartean, etorkizuneko herritarrek modu autonomoan ikas dezaten prestatu behar ditugula hezkuntza-sistemak. Horretaz gain, argi dago ikaskuntza-prozesuek bizitza osoan zehar lagundu behar ditugula eta irakaskuntza-prozesuak ere presente egongo direla, batzuek zein besteek elkarren beharra baitute. Gizarte demokratiko eta iraunkor batean, besteei irakastea, partekatzea eta ezagutza sortzea, ikasteko modu ona izateaz gain, eskolak irakatsi beharreko kontua izango da.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Duran, D. (koord.) (2006): "Tutoría entre iguales: algunas prácticas". *Aula de Innovación Educativa*, 153-154, 7-39.

Duran, D. y Vidal, V. (2004): *Tutoría entre iguales: de la teoría a la práctica*. Barcelona: Graó.

Monereo, C. y Duran, D. (2002): *Entramados. Métodos de aprendizaje cooperativo y colaborativo*. Barcelona: Edebé.

Topping, K. (2000): *Tutoring by Peers, Family and Volunteers*. Geneva: UNESCO.